

HERNANIK kronika

2003 urtea
Apirilak 23
Asteazkena
Alea: 751
www.kronika.net

Alde Zaharra berritzeko obrak ekain hasieran bukatuko dituzte

■ Granitzko lurra jartzen ari dira eta datorren hilaren erdialderako bukatuko dute ■ Kale ixkinak erre-matatu, arbolak jarri eta azkeneko ikutuak ekain hasierarako eginda egongo dira.

ALDE Zaharra berritzeko obrak ekain hasieran bukatuko dira, Udaleko Hirigintza Sailak Kronikari jakin arazi dionez. Azpiegitura eta saneamendua pasea dago eta orain lurra jartzen ari dira. Maiatz erdialdera azken ikutuak ematea faltako zaio eta hori ekain hasierarako egin- go dute, San Joanak aurretik.

Kaxkoa berritzeko obrak hiru fasetan egin dira eta orain azken fasea ari dira bukatzen. Fase honetan berri- tu dituztenak dira Iturriaga, Urbieta eta Nafar kaleko puska bana. Lehenbiziko bi faseak Kardaberaz kalea eta Kale Nagusia izan ziren.

Berrikuntzen azken fasea
Kale Nagusian eta Kardaberaz kalean bezala, azken fase honetan ere azpiegitura eta saneamendua berritu dituzte eta itxura ere aldatu egingo zaio kaleari, espaloia kendu eta granitzko lurra jarrita.

Azpiegitura eta saneamendua berritzeak suposa- tzen du, telefono eta instalazio elektriko berriak pasatzea, fibra optikoa sartzeko lekua eginda uztea, edateko uraren eta gasaren azpiegitu- ra berritza eta zaborra bil- tzeko sistema berria jartza. Baita ere, iluminazioa alda- tuko dute, zuhaitzak jarri eta espaloia kenduko dituzte. Berritutako tramuak oinezkoentzako izango dira, baina karga eta deskarga lanak egiteko modua izango da.

Kontainerak lur azpian
Berriu dituzten Urbieta eta Nafar kaleko zatieta, zaborra biltzeko sistema berria ja- rriko dute. Bi leku horietan kontainerak lur azpian joan-



Hirugarren faseko obrak urtarria bukaera hasi ziren.

go dira eta zaborra botatzeko aho bat izango dute gainean. Kontainer horietan berzi- klatzen ez den zaborra botako da, eta orain arte bezala egunero pasatzen den kamioiak



Kontainerak kutxa horien azpian joango dira.

tainerrak sistema hidraulikoa daukate kanpora ateratzeko, eta behin kontainera kanpoan dagoenean kamioiak orain arteko eran bilduko di- tu. Lurrean 6.400 litroko kapazitatea daukaten 4 zulo

egin dira eta azpian desa- queak jarri zaizkie hor sortu litzkeen zikinak garbitzeko. Manuel Fraile Hirigintzako buruak Kronikari jakin arazi dionez, kontainerak lur azpi- an jartzeak helburu jakin batzuk ditu. Batetik usaia asko gutxituko duela pentsa- tzen dute eta bestetik kaleari itxura atseginago bat eman nahi zaio.

Aurrekontuaren % 68 Eusko Jaurlaritzak jarriko du
Udalak 1.000.000 eurotik gorako diru laguntza lortu du Alde Zaharreko obrak finan- tziatzeko. Horietatik 396.000 euro hirugarren faserako destinatuko dira eta horrek azken fase horren % 68 suposatzen du.

Azken fasearen aurrekon- tu osoa 581.906 euro da. □


'Biblia Osoa' antzezlan bihar Biterin

BIBLIA Osoa antzezlan egingo du Kanping Gags-Txalo taldeak bihar Biterin, arratsaldeko 20:00- etan. Axier Ormaza, Patxi Marko eta Joseba Apaolaza dira aktore- ak. Sarrerak salgai daude dagoe- neko Biterin, 4,5 eurotan. □

Jai Batzordeak bilera du gaur

JAI Batzordeak bilera du gaur Bi- terin, arratsaldeko 18:00etan. San Joanetarako zenbait puntu ezta- baidatu eta erabakiko dituzte. □

■ PELOTA



Iñaki Esnalek herrian jokatuko du.

Txapelketako partiduak Hernanin

ASEGARCE eta Aspek txapelke- ta beren aldetik antolatu dutela- eta, Besagain eta Garfek beren txapelketak antolatu dituzte. Dato- ren larunbatean txapelketako partiduak izango dira Hernanin. Bi bitako txapelketan final laur- denetako partidua dute Esnal- Mendiak/Ayo-Gorritiren kontra. Jaialdiko lehen partidua, bigarren mailako buruz burukoa izango da eta Badiola III-k Gabarri II-ren kontra jokatuko du. Larunba- tean, 22:30etan kiroldegian. □

www.kronika.net
kronika
Internetean helbide berrian

Telf.: 943 551494 / 943 551912
Fax: 943 551130

Cardaveraz 68
Hernani 20120

PROKOLOR ZENTRUA
Landaribar, s.l.
► Pintatzeko ekipoak
► Industriko dekorazioako pinturak
► Pintatutako paperak
Kardaberaz 45 - Telf.: 943 55 21 31 - Hernani

GESTORIA
ZULAIKA
ASESORIA

AMEGAR
Etxe tresnak
Altzariak
Sukalde altzariak
Tel.: 943 55 11 25
Fax: 943 55 16 30

jTXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 653 74 10 97
20120 Hernani

GOXOKIAK ROMBER
okindegia
GOZOKIRK ALIMENTACION
Romber
Karmelo Labaka 6 - behea
Tel.: 943 331 123



Goik hasita, ezkerrean Breogan Estevez, Fernando Esnaola, Jon Altuna 'Oxan' eta Ixidro Esnaola.

Hernaniko Xake Txapelketa azken fasean sartu da

■ Fernando Esnaola, Ixidro Esnaola, Jon Altuna eta Breogan Estevezek jokatuko dute finala, laurek elkarren kontra.

HERNANIKO Xake Txapelketa finala jokatuko duen laukoteka erabakia dago dagoeneko. Iazko txapelduna, Fernando Esnaola, eta orain bi urtekoia, Ixidro Esnaola, pasa dira finalera eta berekin punta puntan ibiltzen diren beste bi xake jokalari arituko dira lehian: Jon Altuna *Oxan* eta Breogan Estevez.

Lau jokalariek bina partida jokatu behar dituzte elkarren kontra, bat fitxa txuriekin eta bestea beltzekin, eta partida gehien irabazten duena izango da txapelduna. Partidak noiz

jokatu jokalariek adostuko dute, baina, egunotan izango dira, Bodega, Kitto, Gadaffi, Aker eta Haida tabernetan.

Parte hartze haundia

Susperaldian dagoen kirola da xakea Hernanin. Garai batean indar dezentea izan zuen, baina, izkutuan egon da azken urteetan. Hernaniko Xake Txapelketak eta xake taldeak berriz ere pil-pilean jartzan ari dute xakea eta gero eta jende gehiagok hartzen du parte. Aurtengo herriko txapelketan 40 lagun apuntatu

dira eta maila altua izan da.

Herriko taldeen harrobi

Hernanin herri barruko xake txapelketaz gain, badaude bi talde ere. Bi talde hauek herriko txapelketaren bueltan sortu ziren hain zuen ere: txapelketan ibilitako jendeak elkar berotu eta animatuta. Bi taldeetan bat mailaz igo da aurten eta besteak igoera fasea jokatu du. Herriko txapelketan finala jokatuko duen laukoteak Hernanirekin ere jokatu du aurten eta emaitza onak lortu dituzte. □

Familia euskaldunetan egonaldiak euskera ikasi edo hobetzeko

■ Uztaila, abuztua eta irailean dira egonaldiak.

FAMILIA euskaldunetan euskera ikasteko egonaldiak antolatzen ari dira Donostiako Urrats eta Bilboko Ulibarri euskaltegiak. Egonaldiak hilabetekoak behar dute gutxienez, uztaila, abuztua eta irailean.

Familientzako baldintzak

Euskera ikasi nahi duen jendea hartu nahi duten familiek zenbait baldintza bete behar dituzte: euskaldunak diren herri edo auzoetan bizitza; udan familian 3 kide behintzat egotea eta elkarrekin euskeraz egitea eta abar. Familialak hilean 550 euro jasoko

ditu. Interesatuta dauden familiak gaur zortzi dute izena emateko azken eguna, apirilaren 30ean.

Ikasleentzako baldintzak

Ikasleek 18-45 urte bitartekoak behar dute eta 8garren urratsa edo baliokidea gainditzua behar dute. Izena emateko maiatzaren 12tik ekainaren 6ra arteko epea dute eta hilabeteko 270 euro ordaindu behar ditu ikasleak.

Izen emateko edo informazio gehiagorako familiek 943 47 44 47 (Olga) telefonora deitu eta 94 416 24 72 (Alaitz) telefonora ikasleek. □



Dantzari festan herri askotako dantza taldeak elkartzen dira.

Dantzari festan laguntzeko prest dauden bilera

DANTZARI festa da maiatzaren 3tik 10era Hernanin. Egun haundia maiatzaren 4a, igandea, izango da eta antolatzaleek laguntza eskatu dute. Igandean, Euskal Herriko zazpi probintziako dantza taldeak datozeren Hernanira, eta 300 bat lagun elkartuko dira Tilosetan baziak. Jendeari

eskatuko zaion laguntza haunden bazkaritan izango da, mahaia jartzen, bazkaria serbitzen eta abar, eta hori antolatzeko bilera dago gaur Biterin. Antolatzaleek dei egin diote laguntzeko prest dauden herniarrei gaurko bilerara agertzeko. 19:00etan Biterin. □

Squash eta tenis txapelketarako izen ematea zabalik da kiroldegiaren

HERNANIKO Squash eta tenis txapelketak jokatuko dira emakumezko eta gizonnezkoetan, kiroldegiaren. Bi txapelketa hauek dagoeneko urte batzuk badituzte: Squashak 10garren edizioa du aurten eta tenisak 7garrena.

Aurtengorako izen ematea zabalik dago kiroldegiaren bertan, eta apirilaren 30a baino lehenago apuntatu behar da. Informazio gehiago nahi duenak 943 552185 telefonora deitu edo kiroldegitik pasa. □

Z I H A R D U T E N E A N D I H A R D U G U
JEXUX ARTZE GOGOAN

Apirlak 22 - maiatzak 4
EZ DOK AMAIRU erakusketa
Udarregi Ikastolan

Apirlak 25, ostirala, gaueko 10:30etan
BENITO LERTXUNDI - "Nere ekialdean"
Kiroldegiaren

Sarrerak salgai: LETE Liburudenda

KULTUR HAMABOSTALDIA

ZERBITZUAK

TELEFONOAK
Taxiak: 943 550093
Udalzaingoa: 943 333288
DYA: 943 464622
Autobusak: 943 556662
Anbulatorioa: 943 006666
Jokalari anônimoak: 943 331103

FARMAZIAK
Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738
Gauze: Iturrealde Usurbil. Poligono 13, 9 ☎ 943 363395

IRAGARKI MERKEAK

Esperientzia duen pelukerak Hernani inguruan lan egindo luke. Deitu: 637 09 83 24
Martxan dagoen Pub bat traspasatzen da Kardaberaz kalean. Deitu: 943 55 06 18

U S U R B I L